

- Pieza guztiak koordinatuta erabiltzea xake-mate emateko.
- Oinarrizko amaierak aztertzea eta ebatzea, eragina duten faktoreak identifikatuz.
- Aldaera soilak kalkulatzeko aldaeren zuhaitza erabiliz.
- Posizioa kalkulatzeko eta ebaluatzea, etorkizuneko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta aurreikusteko, eta haiei buruzko erabakiak hartzeko.

JARRERAK

- Jokoa ulertzen aurrera egiteko behar diren pazientzia-, jarraitutasun- eta metodo-dosi handiak aintzat hartzea.
- Partiden amaieretan egoera sinpleak aztertzeak gero egoera konplexuagoak lantzeko duen erabilgarritasuna aintzat hartzea.
- Lantaldeetan esperientziak izatean, gainerakoen ideiekin malgutasuna, tolerantzia eta errespetua izatea.
- Era arrazoituan erantzunak, ondorioak eta problemen ebazpenak adierazteko interesa.
- Emozioen eta oldarkortasunaren kontrola handitzeko arnas eta erlaxazio-teknikak erabiltzea balioestea, hausnarketarik gabeko ekintzak baztertzea.
- Xakeak adimen artifizialaren garapenean duen eragina ezagutzeko interesa.

7.- BIBLIOGRAFIA